

SEGMENTAZIOA

PATINETE ETA BIZIKLETEN ALOKAIURUA

Xede bezeroek gure enpresari dirua transferitzeko aukera dute. Enpresak hobetzeko laguntzaren bat edo beste izatea ahalbidetzen dugu. Helburuko bezeroek enpresa hobetzen lagundu ahal izango dute, diru-kopuru zehatz bat emanaz. Dirua xede bezeroak nahi duen moduan eman edo transferitu ahal izango du.

Bezeroen banaketa gure enpresarentzat oso garrantzitsua da, batez ere gure produktuek bezeroekin duten harremana ezagutzeko eta hobetzeko. Bezeroak zenbat taldetan banatuko diren ez dugu kopuru zehatzik, baina oso ziur dakigu zer bezero mota aurki dezakegu. Baliteke bezero batzuek nahiago izatea patinete edo bizikleta elektrikoak abiadura handiago bat izatea. Badira beste batzuk leuntasuna nahiago dutenak. Halaber, bezeroak taldeka banatzen dira, eta talde batek, adibidez, produktuarekin joan nahi duten tokietatik nahiko hurbil dagoen kokaleku bat izaten dute komunean. Beste batzuk, aldiz, urrunago joango dira, eta beste batzuk, berriz, lehenago aipatutako baino askoz urrunago.

Bezeroak askoz gehiago banatuko edo sailkatuko ditugu, adibidez, bezeroak adinaren arabera banatuko ditugu. Bezero bakoitzaren gustu pertsonalei ere arreta handia eskaini beharko diegu, izan ere, normalean zein leku joaten diren erabakiko dugu. Bezeroen itxura edo arropa ere oso importantea izango da haiei zer leku gustatzen zaizkien edo zein leku bisitatzen dituzten jakin ahal izateko. Kirol informazioa eskaini ahal diegu ere bai. Adibidez, gure bezeroetako bat txandalarekin janzten bada, argi dago kiroldegira edo gimnasio batera joango dela. Beste adibide bat da bezero batek janzkera dotorea eta korbata janzten baditu, hirian edo herrian dauden enpresetara joango dela. Enpresaren arreta bezeroen beharrianetan jarriko da ere bai.

Galdetegi bat egingo dugu. Galdetegi horretan zer gustuak dituzten jendea adieraziko da. Ezinezkoa da jakitea bezeroak nora joan daitezkeen beren beharreatatik, adinagatik, janzkeragatik... baina ahal dugun guztia egingo dugu bezeroa ahalik eta lasterren iritsi dadin bere lekura.

Bezero guztiek behar berak edo gustu berberak izango balituzte, logikoa da patinete elektrikoek aparkalekuak jende askok gustu eta behar berberak dituen tokietatik gertu egotea. Aparkalekuak edo patinete elektrikoek motak jada ez ditugu aukeratzen bezeroen gustuen, beharren, adinaren eta abarren arabera, baizik eta bezeroen gustuekin, beharrek eta abarrek lotutako bat edo bi kokapen estrategiko aurkitzearen arabera.

